

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren AGINDUA, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiaren lege-aurreproiektuari aldez aurreko onarpena ematen diona.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu bidez ebatzi da baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiaren lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

Horregatik guztiagatik, egindako lege-aurreproiektuaren testua ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.- Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiaren lege-aurreproiektua aldez aurretik onartzea.

Bigarrena.- Lege-aurreproiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera eman zion Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Aginduan ezarritako izapideekin bat etorritz.

Pedro María Azpiazu Uriarte
EKONOMIA ETA OGASUNeko SAILBURUA